

SARE HERRITARRA BALORAZIOA 2022/2023

Urtero garai honetan egin ohi dugun bezala, euskal jendarteari euskal presoen egoeraren berri eman nahi diogu zuen bitartez.

Lehenik eta behin, honakoak dira Euskal Herriko, Espainiako eta Frantziako espetxeetan dauden presoen kopuruak:

GUZTIRA: 166

- 141 gizonezko
 - 25 emakumezko
1. Euskal Herrian 152 (13 espetxealdi arinduan)
 2. Frantzian: 13
 3. Espainian: 1

Gaixotasun larriak dituzten presoak: 12+4 (identitatea ez da publikoa)

GRADUAK (EAE eta NAFARROAko espetxeetan)

- 2. Graduan: 128
- 3. Graduan: 24

Erreferentzia moduan 2022ko abuztuaren erdialdetik 2023ko abuzturako tartea hartu dugu.

Egin nahi dugun lehen erreferentzia, beharbada egungo egoeraren eragile nagusia, honakoa da: euskal presoen jurisdikzio-kontrola Madrilgo organo judizialen esku dago oraindik: Ministerio Fiskala, Espetxe Zaintzarako Epaitegiak eta Audientzia Nazionaleko Lehen Sala.

Beti salatu dugun bezala, horiek salbuespenezko organo judizialak dira, bereganatu baitituzte 5/2003 Lege Organikoa onartu arte tokiko epaile naturalari edo berezko epaileari zegokion eskumena. hau da, EAEn edo Nafarroan dauden epaileei.

Horregatik, horixe da egin nahi dugun lehen salaketa.

Eusko Jaurlaritzaren jarduerari dagokionez, espetxe-eskumenaren ardura hartu zuenetik, abuztuaren 22ra arte, bere eskumenaren erantzukizunaren lehen 10 hilabeteetan, EAeko espetxeetako tratamendu batzordeek 25 proposamen egin dituzte 3. gradura iristeko, eta Justizia Sailburuordetzak onartu egin zituen.

Era berean, lehen 10 hilabete horietan, aurrerapen txiki bat egin zen 48 ordutik beherako baimen-proposamenetan. Dakizuenez, hori Eusko Jaurlaritzaren eskumen eskusiboa da.

2022ko ABUZTUA/2023ko ABUZTUA

Abuztuaren 22ko azken astetik gaur arte, Tratamendu Batzarrek 24 progresio proposatu dituzte 3. gradurako, guztiak ere Justizia Sailburuordetzak onartuak.

Gainera, abuztu honetan, 3. gradurako beste 8 progresio-proposamen daude, Tratamendu Batzarrek onartuak eta EJK berresteke.

Horiek dira Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzaren jarrerari buruzko datuak. Datu positiboak dira, baina espetxe-politika arrunta aplikatzearen balizko emaitzatik oso urrun daude oraindik, betetze-denboragatik erdi-askatasunean edo baldintzapeko askatasunean egon beharko lukete euskal preso gehienak. Saretik, 115 preso inguru izango liratekeela kalkulatu genuen.

ORGANO JUDIZIALEN JARRERA BALORATZEA.

Tratamendu batzarren erabakiekiko konfrontazio-jarrera berarekin jarraitzen dute. 3. graduaren aurrerakuntzei eta espetxe-baimenei dagokienez, hartutako erabakien zati handi bati helegiteak jartzen dizkiete.

Espetxe-baimenei dagokienez, Auzitegi Nazionalarentzat zigorraren bi heren edo hiru laurden betetzean heltzen da baimenak hartzeko unea, baina legeak aurreikusten du baimen horiek zigorraren laurden bat betetzean hasiko direla.

Gainera, baimenak eskuratzea blokeatzen jarraitzen dute, baita kondena betetzeko kuota handi horiek betetzen direnean ere, horretarako hirugarren graduan sartzeko ezartzen diren baldintza berberak eskatzen baitira: barkamena eskatzea, damutzea, norberaren egitateak gaitzestea edo justiziarekin lankidetzan aritzea.

Baimenak espetxe-onurartzat hartzen jarraitzen dute, tratamendu tresnatzat hartu beharrean.

Sailkapenari dagokionez, datuek erakusten dute Eusko Jaurlaritzak denbora-tarte horretan (Abuztuak 22/Abuztuak 23) 3. gradura igarotzeko 24 proposamenetako 16 errekurritu dituela Fiskaltzak. Uztailaren azken astean onartu ziren 3. gradu-rako azken hiru progresioetatik biren inguruan Fiskaltzak har dezakeen jarrera ezagutzeko zain gaude. Errekurtsoa aurkezteko epea ez da abuztuaren 27ra arte amaituko. Errekurrituak izango balira, 24tik 18 izango lirateke errekurritutako aurrerapenak; bestela, 24tik 16. Horrek esan nahi du EAEko administrazioak 3. gradurako onartu dituen progresioen %75i jarri dizkietela helegiteak. Are larriagoa da, izan ere, beste tipologia bateko presoek kasuetan, aurkezten diren helegiteen portzentaia ez da %25era iristen.

Fiskaltzak errekurritutako 3. gradurako 16 progresio horietatik, 6 baliogabetu ditu Espetxe Zaintzako Epaitegiak eta, beraz, 2. gradura eta espetxera itzuli dira; 6 berretsi egin ditu EZEK, hau da, 3. graduari eutsi diote, Fiskaltzaren errekurtsioa eze-tsi egin baita (kasu batean Fiskaltzak berak atzera egin zuen); bat ebatzi gabe geratu zen presoak kondena amaitu ondoren, errekurtsioa ebatzi aurretik, eta beste 3 ebatzi gabe daude.

Praktika judizial honetan, aipatu ditugun organoek, Auzitegi Nazionalen kokatuta daudenek, ez dituzte aintzat hartzen eta gutxietsi egiten dituzte Espetxeetako teknikarien (psikologoak, gizarte-hezitzaileak eta gizarte-langileak) lana, iritziak

eta txostenak, bai eta Lurralde Auzitegietako Batzordearen eta Eusko Jaurlaritzaren beraren iritzia eta erabakiak edo proposamenak ere.

Oro har, beraz, salbuespenezko legeria modu irmoan aplikatzen jarraitzen dela egiaztatzen da. Alde horretatik, aspalditik adierazi duguna errepikatu besterik ez dugu egin behar:

Terrorismoaren aurkako borrokan pentsatutako legedia da, duela 20 urte pentsatua eta onartua, egungo egoerarekin zerikusirik ez duten inguruabarrerako. ETAk 2011n utzi zion bere jarduerari, eta 2018an desegin zen.

1979ko Espetxeen Lege Organiko Orokorren eta 1996ko Espetxe Araudiaren filosofia erabat urratzen duen legedia da. Ez ditu erabat ezagutzen birgizarteratzearen, berreziketaren eta gizarteratzearen printzipio konstituzionalak, eta zigorrak osorik eta osotasunean betetzea baino ez du bilatzen, zigor hori giltzapeko betetze gisa ulertuta. Ordainketa-printzipio hutsa: egiten duenak ordaindu egin behar du. Ez du tratamendua espetxe-legeriaren oinarritzko tresna gisa hartzen.

Bereziki, 3. gradua erabateko askatasuntzat hartzen du, zigorra betetzeko modu bat den aldetik hartu ordez. Hala, ELOOren filosofiaren eta literaltasunaren aurrean, ez da 3. gradura urreratzen gizartera itzultzeko moduan dagoena, gizarteratzearen aldeko pronostikoa eskaintzen duena, baizik eta, Fiskaltzak, Espetxe Zaintzako Epaitegiak eta Sala 1k egiten duten interpretazioari jarraiki, soilik 7/2003 Lege Organikoaren betekizunak betetzen dituena: lankidetzaren agintari judizialekin edo gobernu-agintariekin, biktimei barkamena eskatzea (haien egitateei, edo ETArekin biktimei guztiei,...), nork bere egitateak gaitzestea, damua...

Hori da ohikoa, salbuespen jakin batzuekin, ia beti lotuta baitaude presoari zigorra amaitzeko denbora gutxi geratzearekin.

Alde batera uzten da arauak aplikatu behar diren testuinguruaren arabera nahitaez interpretatu beharra (Kode Zibilaren 3. artikulua). Guztiz bestelako testuinguru baterako pentsatutako araudia indargabetzen ez bada, eska daitekeen gutxienekoa da araua zentzuz eta malgutasunez aplikatzea. Esate baterako, agerikoa dirudi gaur egun nekez frogatu daitekeela existitzen ez den erakunde batekiko loturarik ez dagoela, eta ezin dela agintariekin lankidetzan aritu existitzen ez den jarduerari bati aurre egiteko, ezta legez kanpoko ingurune, jarduerari eta elkarte batek bereizteko ere, jarduerari eta elkarte horiek behar bezala legeztatuta badaude.

Erreklamazioak 2023ko uztailaren 23ko hauteskundeetatik aterako den Espainiako Gobernuari:

Erreklamazio zehatzak egin aurretik, beharrezkoa iruditzen zaigu orain arte egin diren gogoeta batzuei erantzutea.

Adibidez, "Etxera" esaten dugunean, esaten ari gara euskal presoek etxera itzultzeko bidea hasteko aukera izan behar dutela. Eta hori espetxe-politika arrunta aplikatuz egin daiteke. Salbuespenezko legeria pertsonak berreskuratzera bideratutako espetxe-erakundeen ideari egindako "osoko zuzenketa" dela kontuan hartuta, zigoren eta espetxearen izaera erabat zigortzailea eta atzerakoa, erregimen politiko eta pentsamolde sozial kontserbadoreenei dagokie.

Batez beste 20 urteko askatasun-gabetzea daramaten pertsonentzako "Amnistia kamuflatuaz" edo "zigorgabetasunaz" hitz egitea, batez beste 50 urte dituztenentzat, askotan osasun-koadro kezagarriak dituztenentzat... Indarkeria politikoa duela dozena bat urte amaitu bazen, pertsona horietako gehienak 2000. urtea baino lehen edo hurrengo bi edo hiru urteetan izandako gertaerengatik daude kondenatuak. Hortaz, espetxean mantentzea eragiten duten gertakariak duela 20 urte baino gehiago gertatu ziren...

Pertsonen ari gara. Bi hamarkada luzez espetxeratuta egon ondoren, euskal espetxeetara baldintza onartezinetan iritsi diren pertsonen, giza eskubideen kontrako baldintzetan biziraun dutenak: etxetik ehunka edo milaka kilometrora urrunduzituzten, zigor gehienak lehen graduan bete dituzten, isolamendu moduluetan askotan, espetxeko jardueretan parte hartzeko eskubiderik gabe, mediku arta duinik jaso gabe.... Birgizarteratze-prozesuak hainbat hamarkadatan egon dira blokeatuta, eta, beraz, eskatzen ari gara ez da mesede-tratua, ez eta pribilegio-tratua ere. EZ. Salbuespenen amaiera eskatzen dugu, eta hori bateragarria da gure herrian jasandako indarkeria guztien biktimen errespetuarekin eta errekonozimendurekin.

ETAren jarduera orain dela hamabi urte amaitu zela aintzat hartuta, nekez uler daiteke euskal presoek egoerari konponbiderik eman ez izana, eta, oraindik, biktima guztien tratamenduari buruzko jarrera adostua ez izatea. Munduko leku zibilizatuetan ez da inoiz antzeko egoerarik gertatu.

Nori komeri zaio egoera bidegabe hori? Nork du egoera hori betikotzeko interesa? Indarkeria politikoa amaitu ondoren dena birbideratuko zela esan zutenek (salbuespenezko legediak onartu zituztenen esanetan, neurri horiek indarkeria

desagerrarazteko sortu zituzten) gogor dihardute ezer alda ez dadin, denak berdin jarrai dezan. ETAk bere jarduerari amaiera ematea erabaki zuenez geroztik, hamar urte luzez eutsi diote urruntze-politika anker horri. Horrez gain, urruntze-politika ez zela presoen eta haien familien oinarrizko eskubideen aurkakoa esan zuten, baina, egiatan, neurri horri sostengu sozialik ez zuelako egin zioten uko. Eta orain zigorrak oso-osorik bete behar dituztela exijitu nahi dute, mina eragitea helburu, beste ezer ez.

Izan ere, zer zentzu du sufrimendu egoera horiek luzatzeak? Zein asmo dute horrekin? Zer onura sozial ekarriko du egoera horrek? Ze ekarpen egingo diete bizikidetzari eta adiskidetzeari lege horiek? Espetxe-lege arruntak aurreikusitako eta diseinatutako askatze-prozesuetarako eskubidea ukatzeak sektore jakin batzuen mendeku egarria asetzeko baino ez du balio...

Errespetuz, indarkerien biktima guztiei askotan erakutsi diegun errespetuz, adierazi nahi diegu haien mina errespetatu egiten dugula, min hori haien sentimenduei lotuta dagoelako. Baina ez dugu zilegitzat jotzen bokazio politikoa duten biktimen elkarteek estatuari espetxe-politiketarako irizpideak ezarri nahi izatea; edo, biktimen kopuru handi baten iritziaren aurka, existitzen ez den indarkeria politikoki erabiltzera jotzen duten horien jarrera, ezer alda ez dadin tematuta daudenen jarrera politikoa. Eta, jakina, horien artean aparatu judizialaren zati bat ere bada, joera ideologiko/politiko nabaria duena eta bere postuetan gotortu dena. pertsona horiek espetxetik ateratzeko prozesuei traba egiteko ez ezik, posizio politiko orokorreari zilegitasuna emateko ere gogor ari dira.

Argi eta garbi esan behar da ETA jada ez dela existitzen. Elkarbizitzaren bidean aurrera egiteko garaia dela, eta horrek funtsezko bi gairen inguruko akordioak lortzea eskatzen duela; biktimen mina alderdikeriaren mesedetan ez erabiltzea eta kartzelen arazoari irtenbidea ematea, salbuespen neurri guztiak erabat baztertuta.

SAREn uste dugu egoera normalizatzeko prozesu bati ekitea beharrezkoa dela, erabakitazunez, gaur egungo testuingurura egokitutakoa, gertatutakoa eta gertatu zen guztia ahaztu gabe, baina neurri egokiak hartuz, gainditutako faseak min handiagorik eragin ez dezan.

Horretarako, honako hauek jotzen ditugu ezinbestekotzat:

Duela 20 urte sortu zuten salbuespenezko legeria indargabetzea.

Edo, aldaketa partzialen bidez behintzat, gaur egungo egoera berrira egokitzea.

Edo, lege horiek egungo testuingurua kontuan hartuta interpretatzea.

Eta hori guztia bi edo hiru legetan dago oinarrituta: lege horien edukiak dagoe-neko gaindituta daude, eta esparru akademikoko eta judizialeko hainbat sektorek gaitzetsi egin dituzte, eta horiek presoekin edo haien erakundearekin bat ez datozen sektoreak dira.

Bestalde, preso horiek pixkanaka gizartera itzultzeko prozesuen kontrola presoak hartuko dituen gizarteak berak egin behar du. Euskal gizarteak berreskuratuko ditu pertsona horiek, eta, beraz, euskal gizarteak diseinatu, zuzendu eta proposatu behar ditu pixkanaka espetxetik ateratzeko prozesuak, erakunde politiko eta judizialen bitartez. Prozesu horien kontrola ezin da egon herrialdea, euskal gizarte eta testuingurua ezagutzen ez dituzten pertsonen esku, horiek ez baitira gai neurtzeko zenbateraino dauden prest gizartera itzultzeko eta zenbateraino dagoen prest gizarte hau prozesu horiek onartzeko. Audientzia Nazionalean aginte-zubia duen kontrol judiziala desagertu egin behar da. Euskal instituzioak (Kartzeletako teknikariak eta Tratamendu Batzordeak, Eusko Jaurlaritza, eta ezarritako zigorren betearazpena gainbegiratzeko eskumendun organo judizialak) erabat gaituta daude, sentsibilitate guztiak kontuan hartuta, bidezko akordioak hartzeko, eta, adierazi dugun bezala, inori balio ez dion eta guri min handia ematen digun egoera hau behingoz desagerrarazteko.

Amaitzeko, aipatu ditugun zailtasun guztiak gainditzeko itzaropena berretsi nahi dugu. Aurrera goaz, eta espero dugu guztion artean adostasun nahikoa lortzen jakingo dugula, gizarte gisa bizikidetzaren bidean aurrera egiten dezagun.